

Alcatel

Onetouch 1030X / 1030D

Erabiltzailearen eskuliburua



Euskartelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



Bizkor hasteko gida

Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu www.alcatelonetouch.com webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburu osoa (ingelesezko bertsioa bakarrik). Webgune horretan, FAQeko (ohiko galderen foroa) kontsultak ere egin ahal izango dituzu (ingelesezko bertsioan bakarrik).

Hemen jarraitu gaitzakezu:



AlcatelOneTouchES



Telefono mugikor honek estatuan aplikatu beharreko 0,2 watt/kg-eko SAR mugak betetzen ditu. SAREn gehieneko balioak zein diren jakiteko, ikus erabiltzailearen eskuliburu honetako 23. orrialdea. Telefonoa gorputzetik gertu daramazunean (www.sar-tick.com) edo hura erabiltzen duzunean, erabil ezazu osagarri baimendu bat (esaterako, gerrikoan jartzeko zorro bat), edo utz ezazu 10 mm-ko tartea telefonoaren eta zure gorputzaren artean, irradi-maiztasunarekiko esposizioari buruzko neurriak betetzen dituzula ziurtatzeko. Kontuan izan telefonoak uhin elektromagnetikoak igortzen dituela deirik egiten ez duenean ere.




BABESTU ENTZUMENA

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili gailua belarrira hurbildu behar baduzu bozgorailua martxan dela.

ALCATELone touch®

1 Zure telefonoa



- ❶ Ezkerreko funtzio-tekla
- ❷ Telefonoa hartzeko / Deitzeko
Dei-erregistroa
- ❸ Ahots-postontzia
(luze sakatuta)
- ❹ Eskuineko funtzio-tekla
- ❺ Pizteko/Itzaltzeko tekla
- ❻ Esekitzeko
- ❼ Bibragailua (luze sakatuta)
Nabigazio-tekla
Menu-tekla/Aukera bat
berresteko tekla 
- Mezuak ➤
- Egutegia ▼
- Profilak ◀
- Alarma ▶

1.1 Teklak



Nabigazio-tekla

Aukera bat berresteko (teklaren erdian sakatuta)



Telefonoa hartzeko / Deiak egiteko

Pantaila nagusian:

Dei-erregistroa kontsultatzeko (berrirori deitzeko) (labur sakatuta)



Telefonoa pizteko/itzaltzeko (luze sakatuta)

Eskegitzeko

Pantaila nagusira itzultzeko



Ezkerreko funtzio-tekla



Eskuineko funtzio-tekla



Ahots-postontzia kontsultatzeko (luze sakatuta)



Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: ikurren taulara joateko

- Luze sakatuta: zero idazteko



Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: idazteko metodoak aldatzeko

- Luze sakatuta: hizkuntza-zerrendara joateko



Pantaila nagusian:

- Labur sakatuta: #

- Luze sakatuta: bibrazio-modua aktibatze/ desaktibatze

Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: zuriune bat sartzeko

1.2 Pantaila nagusiko ikonoak ⁽¹⁾

1030X modeloan:



Bateriaren karga-maila.



Bibrazio-modua: Zure telefonoak dar-dar egiten du, baina ez du soinurik egiten.



Entzungailuak konektatuta.



Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta: Zure deiak desbideratu egingo dira.



Alarmak edo hitzorduak programatuta.



Estaldura-adierazlea.



Mezu berria ahots-postontzian.



Dei galduak.



Irratia piztuta.



Roaming-a.



SIM txartela falta da.



Musika-irakurgailua aktibatuta.



Modu isila: Zure telefonoak ez du txirrinik edo soinurik egiten, eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik.



Irakurri gabeko SMSa.



Hegazkin-modua.

⁽¹⁾ Gidaliburu honetako ikonoek eta irudiek orientazio gisa balio dute.

1030D modeloan:



Estaldura-adierazlea.



Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta: Zure deiak desbideratu egingo dira.



Irakurri gabeko SMSa.

2 Martxan jartzea

2.1 Erabiltzeko moduan jartzea

Atzeko tapa ateratzea/jartzea



Bateria ateratzea/jartzea




SIM txartela sartzea eta ateratzea

1030X




1030D



Jarri SIM txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, estutu eta atera kanporantz.

Bateria kargatzea



Konektatu kargagailua telefonora, eta konektatu kargagailua korronte-hargunera.

- Baliteke kargagailuak 20 bat minutu behar izatea kargatzen hasteko, bateria guztiz agortuta badago.
- Ez behartu telefonoaren hargunea.
- Egiaztatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.
- Korronte-harguneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikorik ez erabiltzea gomendatzen da).
- Telefonoa lehenengo aldiz erabiltzean, bateria erabat kargatzea aholkatzen dizugu (3 orduz gutxi gorabehera). Behar bezala funtziona dezan, telefonoa erabat kargatu behar duzu ().
- Bateria- eta energia-kontsumoan aurrezteko, bateria kargatzen denean, deskonektatu kargagailua entxufetik, murriztu hondoko argiaren denbora eta abar.



Bateria erabat betetzen denean, animazioa gelditu egiten da.

2.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu  tekla telefonoa piztu arte.

2.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu pantaila nagusiko  tekla.

3 Deiak

3.1 Deiak egitea

Markatu nahi duzun telefono-zenbakia eta sakatu  tekla dei bat egiteko. Akatsen bat eginez gero, erabili eskuineko funtzio-tekla zifrak ezabatzeko.

Esekitzeko, sakatu  tekla.

Larrialdi-deiak egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu  larrialdi-dei bat egiteko, baita SIM txartelik ez baduzu ere; ez duzu PIN kodea sartu beharko.

3.2 Ahots-postontzira deitzea ⁽¹⁾

Ahots-postontzira sartzeko, luze sakatu luze |  tekla.

3.3 Deiak jasotzea

Deia jasotzean, sakatu  tekla deia hartzeko, eta, esekitzeko, sakatu  tekla.

3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean erabil ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure agenda, egutegia, mezu laburrak eta abar erabil ditzakezu, solaskidearekiko komunikazioa eten gabe.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

4 Karpeta



4.1 Zure kontaktuak kontsultatzea

Pantaila nagusitik **kontaktu-zerrendara** sartzeko, sakatu  tekla, eta aukeratu menuko  ikonoa. SIM duala duten modeloen kasuan, SIM1 eta SIM2ko kontaktu guztiak eskura daude menu honetan (1).

4.2 Kontaktuak gehitzea

Kontaktu berri bat gehitu diezaiokezu telefonoari edo SIM txartelari, **“Kontaktua gehitu”** aukeratuta.

5 Mezuak



5.1 Mezu bat sortzea

Menu nagusitik, hautatu **“Mezuak”** testu-/multimedia-mezu bat sortzeko. **Txantiloia**k atalean, aurrez definitutako mezuak idatzi eta alda ditzakezu. Idazten ari zaren bitartean, hautatu **“Aukerak”** mezuen aukera guztietara sartzeko. Maiz bidaltzen dituzun mezuak **Zirriborroak** atalean gorde ditzakezu.



Karaktere bereziek (azentzuak) SMSaren tamaina handitzen dutenez, baliteke jasotzaileari SMS bat baino gehiago bidaltzea.

⁽¹⁾ 1030D modeloen bakarrik.

6 Dei-erregistroa



6.1 Sarbidea

Aukera hauen bidez sar zaitezke funtziora:

- Menu nagusian, aukeratu .
- Pantaila nagusian, sakatu bidaltzeko tekla.

6.2 Erabilgarri dauden aukerak

“Aukerak” sakatuta, aukera hauek dituzu: **Ikusi, Bidali SMSa, Gorde kontaktuetan, Editatu deitu aurretik, Gehitu zerrenda beltzean, Gehitu zerrenda zurian, Ezabatu.**

7 Musika



Funtzio honetara sar zaitezke hasierako menutik **“Musika”** hautatuta. Zure mugikorreko eta zure memoria-txarteleko musika kudeatzeko malgutasun osoa izango duzu. Musika aktibatu aurretik, ziurtatu memoria-txartela sartu duzula.

8 FM irratia




Zure telefonoak RDS funtzioa duen irratia^[1] du. Zure telefonoa irradi arrunt gisa erabil dezakezu, eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero. Beste aplikazio batzuk exekutatzen dituzun bitartean ere entzun dezakezu irratia.

9 Nire fitxategiak



Telefonoan edo memoria-txartelean, **Nire fitxategiak** karpetan, jasotako audio- eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke. Funtzio honen bidez, hainbat aukeratan sar zaitezke: **Private**, **Nire irudia**, **MRE**, **video**, **Nire audio fitxategia**, **Nire irudiak**, **Nire sorkuntzak**, **Beste fitxategi batzuk**.

Memoria-txartela sartzeko eta ateratzeko:



Sartu microSD txartela urre-koloreko kontaktuak behera begira dituela. Txartela ateratzeko, sakatu, eta atera kanporantz.

^[1] Irratiaren kalitatea zauden eremuan kateak duen estalduraren arabera da.

10 Ezarpenak



Pantaila nagusian, aukeratu menuko  ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko: Telefono-ezarp, Dei-ezarpenak, Sare, Segurtasuna, Berrezarri lehenets, SIM Dual aldatu, SIM Dualeko ezarpenak ⁽¹⁾

11 Tresnak



11.1 Alarma

Zure telefono mugikorrak iratzargailua du, eta errepikapen-funtzioa dauka.

11.2 Kalkulagailua

Idatzi zenbaki bat, hautatu egin nahi duzun eragiketa, eta hautatu beste zenbaki bat. Ondoren, sakatu "=" emaitza bistaratzeko.

11.3 Egutegia

Menu nagusitik menu honetara sartuta, hilabeteko egutegi bat aurkituko duzu.

⁽¹⁾ 1030D modeloan bakarrik.

11.4 Ahots-alarma

Menu honen bidez, ahots-fitxategia sor dezakezu, eta alarma gisa definitu.

11.5 Oharrak

Testu-formatua duen ohar bat sor dezakezu menu nagusiko **“Tresnak/ Oharrak”** aukeran.

11.6 Dei-iragazkia

Aktibatu zerrenda beltza: zerrendako solaskide guztiak automatikoki blokeatuko dira. Aktibatu zerrenda zuria: zerrendako solaskideak baino ezingo dira komunikatu zurekin. Zerrenda bakoitzari 50 kontaktu gehi diezazkiokezu Contactos, Registro de llamadas edota Mensajes aukeratik, edo zuzenean sor ditzakezu  tekla sakatuta.

11.7 Zerbitzuak

Jarri harremanetan sarearen operadorearekin, eskuragarri dituzun zerbitzuen berri izateko.

12 Profilak



Menu honen bidez, gertaera eta inguru bakoitzaren dei-tonuak pertsonaliza ditzakezu.

13 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari

ONETOUCH upgrade

ONE TOUCH eguneratze-tresnaren bidez, zure telefonoaren softwarea egunera dezakezu ordenagailutik.

Deskarga ezazu ONE TOUCH Upgrade ALCATELen webgunean (www.alcatelonetouch.com), eta instala ezazu ordenagailuan. Abiaraz ezazu tresna, eta eguneratu zure telefonoa, argibideak urratsez urrats jarraituz (kontsultatu ezazu tresnarekin batera datorren erabiltzailearen eskuliburua).

Hala, zure telefonoaren softwarearen azken bertsioa izango duzu.



Informazio pertsonal guztia behin betiko galduko da eguneratze-prozesuaren ondoren. Gomendatzen dizugu, eguneratu aurretik, zure datu pertsonalen segurtasun-kopia egitea.

14 Testua idazteko modua

Mezuak idazteko, bi idazketa-metodo daude.

- **Normal:** Modu honekin, teklei dagozkien letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko.
- **Testua modu prediktiboan sartzea, eZi moduan:** Modu honekin, azkarrago idatz daiteke testua.
-  + **tekla, editatzeko moduan:**

Labur sakatuta: Ikurren taulara sartzen da.

Luze sakatuta: Zero idazten da.

Alcatel-Lucenten marka erregistratua da ALCATEL, eta
TCT Mobile Limiteden lizentziarekin erabiltzen da.

Eskubide guztiak erreserbatuta
© Copyright 2013 TCT Mobile Limited.

Aldez aurretik iragarri gabe materialak edo xehetasun
teknikoak aldatzeko eskubidea du TCT Mobile Limitedek.



BABESTU ENTZUMENA

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen
altuan denbora luzez. Kontuz ibili gailua belarrira hurbildu
behar baduzu bozgorailua martxan dela.

Erabiltzeko oharrak

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da izango telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorio-en erantzule.

• **SEGURTASUNA IBILGAILUAN**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gida-tzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea gomendatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo entzungailuak musika edo irratia entzuteko. Entzungailuak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea. Telefonoak erradiazioa igortzen du piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake; adibidez, gurpilak ez blokeat-zeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean eta abar.

Beraz:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- galdetu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irradi-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

• **ERABILTZEKO KONDIZIOAK**

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeko.

Itzali telefonoa hegazkinetan.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Gailu hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irradi-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzio-namenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Errespetatu arauak erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri inoiz telefonoa tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa

taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrian, ipini beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik. Bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Ez utzi haurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo haiekin jolasten zu inguruan ez bazaude.

Karkasa desmuntagarria ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbian.

Ez utzi telefonoa kondizio txarrak dauden tokietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa eta abar). Fabrikatzaileak -10 °C eta +55 °C bitarteko tenperatura gomendatzen du.

55°C-tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da, eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, ezin da deitu zenbait larrialdi-zenbakitara. Larrialdi-deiak egiteko, ez egon zure telefonoaren mende soilik. Baliteke huts egitea.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti, eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren ALCATEL ONE TOUCH bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili. Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limitedek eta haren filialek ez dituzte beren gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Ez bota telefonoa udalaren zabor-ontzietara. Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak).

Epilepsia-krisirik edo korde galerarik inoiz izan ez dutenei ere gerta dakieke. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideo-joko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsuak

aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsuk dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi, eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetakozuzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek izateko arriskua txikitzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jokatu telefono mugikorrarekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- ordu oro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jokatu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jokatzeke, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- jokatzen ari zaren bitartean eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badute, ez jokatu gehiago eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetakoz edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:



BABESTU ENTZUMENA

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili gailua belarrira hurbildu behar baduzu bozgorailua martxan dela.

• BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeari eta soinuak grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardura da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarriketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute

izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

• BATERIA:

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek izan behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, eta ez eduki 60°C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limitedek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriak ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta, haien osagaiak, berrerabili.

Europako Batasuneko herrialdeetan:

Doakoa da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:

Herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

ERNE! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMAN-DAKO JARRAIBIDEEI.

• KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0°C eta 40°C bitartean funtzionatzen dute.

Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu eta erabilera horretarako bakarrik diseinatu dago. 2009/125/EE Ekodiseinuari buruzko direktiba ere betetzen dute.

• **UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK:**

Telefono mugikorren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osa-suna eta segurtasun publikoa babestea, batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena, eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da. TELEFONO MUGIKOR HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOEN ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU

Zure telefono mugikorrak irrati-uhinak (uhin elektromagnetikoen irrati-maiztasuna) igorri eta jasotzen ditu, eta nazioarteko araudietan gomendatzen diren uhin elektromagnetikoen esposizioari buruzko mugak errespetatzeko diseinatu da. Arau horiek zientzia-batzorde pribatu batek garatu ditu (ICNIRP, Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak), eta erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko segurtasun-tarte garrantzitsu bat barnean hartzen dute, erabiltzaile horien adina edo osasun-egoera edozein direla ere.

Absortzio espezifikoaren tasa (SAR, specific absorption rate) deritzen neurri-unitatea erabiltzen dute uhin elektromagnetikoen esposizioari buruzko arauak, zeinak telefono mugikorrak igortzen duten irrati-maiztasuna neurtzen baitu. Telefono mugikorretarako SAR muga 2,0 watt/kilogramo da. SAR probak potentzia-mailarik altuena igortzen duten telefono mugikorretan egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. Hauek dira SAR balio altuenak, ICNIRP batzordeak modelo honetarako ezarritako arauen arabera:

1030X:

Modelo honentzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehieneko SAR balioa.		
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	GSM 900	0,634 W/kg
Gorputzerako SAR balioa	GSM 900	0,529 W/kg

1030D:

Modelo honentzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehieneko SAR balioa.		
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	GSM 900	0,968 W/kg
Gorputzerako SAR balioa	GSM 900	0,529 W/kg

Telefono honen benetako SAR balioak, erabiltzen den bitartean, adierazitako balio horiek baino baxuagoak dira oro har. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da deiak egiteko potentzia osoa behar ez denean. Zenbat eta txikiagoa izan telefonoaren potentzia, orduan eta txikiagoa izango da haren SAR balioa.

Gorputzeko SAR probak egiteko, 10 mm-ko tartea utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean. Ez baduzu osagarri baimendu bat erabiltzen, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du informazio zientifiko horrek ez duela ziurtatzen ez denik beharrezkoa neurri bereziak hartzea telefono mugikorrek erabiltzeko garaian. Esposizioa murriztu nahi baduzu, mugikorraren erabilera murriztea gomendatzen da, edo, bestela, esku libreko aukera erabiltzea, telefonoa gorputzetik eta burutik urruti edukitzeko.

Informazio gehiago izateko, ikus www.alcatelonetouch.com webgunea.

Hurrengo orri honetan, eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruzko informazioa duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu, eta ez hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke. Entzungailuekin edo USB datu-kablearekin erabiltzean, gailuak dagokion norabidean egon behar du. Beste osagarriren bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta kokatu telefonoa gorputzetik 10 mm-ra gutxienez.

Araudiari buruzko informazioa

Ohar eta onarpen hauek eskualde batzuetan aplikatzen dira, adierazten den bezala.

EC declaration of conformity / Declaración de conformidad CE

Product / Producto : GSM dualbands handheld station with FM radio / Teléfono GSM de banda dual con radio FM

Product identification / Identificación del producto :

ALCATEL 1030X type Ginger EU

We / Nosotros TCT Mobile Europe SAS
55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre
France

Declare under our sole responsibility that the product above mentioned is conform to the applicable essential requirements of the directive 1999/5/EC and that all essential radio test suites have been carried out. Conformity assessment procedure : annex IV of the directive. / Declaramos bajo nuestra entera responsabilidad que el producto descrito anteriormente cumple con los requisitos de aplicación necesarios de la directiva 1999/5/CE y que se han llevado a cabo todas las pruebas de radio requeridas. Procedimiento de evaluación de conformidad: anexo IV de la directiva.

Applied standards / Normas aplicadas:

- Item 3.1.a (protection of the health and of the safety of the user) / Artículo 3.1.a (protección de la salud y de la seguridad del usuario)

- EN 60950-1:2006 + A11:2009 + A12:2011 + A1:2010
- EN 62209-1 (2006)
- EN 62209-2 (2010)

- EN 50 360: 2001/AC:2006, Council recommendation 1999/519/EC (July 99) / Recomendación del consejo 1999/519/CE (July 99)

- Item 3.1.b (protection requirements with respect to electromagnetic compatibility) / Artículo 3.1.b (requisitos de protección por lo que respecta a la compatibilidad electromagnética)

- EN 301 489-1 v.1.9.2 (2011-09), EN 301 489-7 v.1.3.1 (2005-11)

Item 3.2 (effective use of spectrum so as to avoid harmful interferences) / Artículo 3.2 (uso eficaz del espectro radioeléctrico con el fin de evitar interferencias perjudiciales)

- EN 301 511 v.9.0.2 (2003-03).

This product also conforms to the applicable requirements of following directives, / Este producto cumple con las siguientes directivas:

- directive 2004/108/EC (electromagnetic compatibility). / directiva 2004/108/CE (compatibilidad electromagnética)

- EN 55013:2001 +A2:2006

- EN 55020:2007

- directive 2011/65/EU (RoHS - restriction of the use of certain hazardous substances) /directiva 2011/65/EU (RoHS - restricción de uso de ciertas sustancias peligrosas)

This product can connect with a Common Mobile Phone Charger which complies with below standards: (Este producto puede conectarse con un Cargador de Teléfono Móvil Estándar que cumpla con la siguiente normativa :)

- EN301 489-34 v1.1.1 (2010-10)
- EN301 489-34 v1.3.1 (2012-06)
- EN 62684:2010

Conformity of this product has been reviewed by the following Notified body of directive 1999/5/EC / La conformidad de este producto ha sido revisada por el siguiente organismo Notificado de la directiva 1999/5/EC

American Certification Body, Inc.
Suite C110, Whittier Avenue 6731, 22101 McLean, Virginia, United States
TCT Mobile Europe SAS
Immeuble Le Capitole

Date :2013-04-23

Signature

55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre - FRANCE
RCS Nanterre 440 038 222

Christophe Benoit

TCT Mobile Europe SAS / Deputy General Manager, EMEA.

CE 1588

EC declaration of conformity / Declaración de conformidad CE

Product / Producto : GSM dualbands handheld station with FM radio / Teléfono GSM de banda dual con radio FM

Product identification / Identificación del producto :

ALCATEL 1030D type Ginger 2SIM EU

We / Nosotros : TCT Mobile Europe SAS
55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre
France

Declare under our sole responsibility that the product above mentioned is conform to the applicable essential requirements of the directive 1999/5/EC and that all essential radio test suites have been carried out. Conformity assessment procedure : annex IV of the directive. / Declaramos bajo nuestra entera responsabilidad que el producto descrito anteriormente cumple con los requisitos de aplicación necesarios de la directiva 1999/5/CE y que se han llevado a cabo todas las pruebas de radio requeridas. Procedimiento de evaluación de conformidad: anexo IV de la directiva.

Applied standards / Normas aplicadas :

- Item 3.1.a (protection of the health and of the safety of the user) / Artículo 3.1.a (protección de la salud y de la seguridad del usuario)
- EN 60950-1:2006 + A11:2009+ A12:2011 + A1:2010
- EN 62209-1 (2006)
- EN 62209-2 (2010)
- EN 50 360, 2001/AC:2006, Council recommendation 1999/519/EC (July 99) /

Recomendación del consejo 1999/519/CE (July 99)

- Item 3.1.b (protection requirements with respect to electromagnetic compatibility) / Artículo 3.1.b (requisitos de protección por lo que respecta a la compatibilidad electromagnética)

- EN 301 489-1 v.1.9.2 (2011-09), EN 301 489-7 v.1.3.1 (2005-11) ,

Item 3.2 (effective use of spectrum so as to avoid harmful interferences) / Artículo 3.2 (uso eficaz del espectro radioeléctrico con el fin de evitar interferencias perjudiciales)

- EN 301 511 v.9.0.2 (2003-03),

This product also conforms to the applicable requirements of following directives, / Este producto cumple con las siguientes directivas:

- directive 2004/108/EC (electromagnetic compatibility). / directiva 2004/108/CE (compatibilidad electromagnética)

- EN 55013:2001 +A2:2006

- EN 55020:2007

- directive 2011/65/EU (RoHS - restriction of the use of certain hazardous substances) /directiva 2011/65/EU (RoHS - restricción de uso de ciertas sustancias peligrosas)

This product can connect with a Common Mobile Phone Charger which complies with below standards:

(Este producto puede conectarse con un Cargador de Teléfono Móvil Estándar que cumple con la siguiente normativa:)

- EN301 489-34 v1.1.1 (2010-10)

- EN301 489-34 v1.3.1 (2012-05)

- EN 62684:2010

Conformity of this product has been reviewed by the following Notified body of directive 1999/5/EC / La conformidad de este producto ha sido revisada por el siguiente organismo Notificado de la directiva 1999/5/EC:

American Certification Body, Inc.

Suite C110, Whittier Avenue 6731, 22101 McLean, Virginia, United States

Identification number: 1588

Date :2013-04-23

Signature

TCT Mobile Europe SAS

Immeuble Le Capitole

55, avenue des Champs Pierreux

92000 Nanterre - FRANCE

RCS Nanterre B 440 038 222

Christophe BENOIT

TCT Mobile Europe SAS / Deputy General Manager, EMEA.

CE 1588

LIZENTZIAK:



MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.



ZiCorporationen eta/edo haren bazkideen marka komertzialak dira eZiText® eta Zi®.

Informazio orokorra

- **Interneteko helbidea:** www.alcatelonetouch.com
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** Ikus "TCT Mobile Services" liburuxka edo Interneteko gure gunea.
- **Helbidea:** Room 1910-12A, Tower 3, China HK City, 33 Canton Road, Tsimshatsui, Kowloon, Hong Kong.

Interneteko gure gunean, online kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango zara posta elektronikoz galderak egiteko. Erabiltzailearen eskuliburu honen ingeleseko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak Interneteko gure helbidean deskarga ditzakezu: www.alcatelonetouch.com. Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailu bat da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900 eta 1.800 MHz-eko bandetan.

€1588

Honen bidez, TCT Mobile Limitedek adierazten du ALCATEL 1030X/1030D telefono mugikorrek 1999/05/EE Direktibako oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituztela.

Lapurretaren aurkako babesa ⁽¹⁾

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (*#06# tekla sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, baliteke poliziak edo operadoreak eskatzea telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

Erantzukizunik eza

Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera. Halako desberdintasunik izanez gero, TCT Mobilek ez ditu bere gain hartzen, ez eta desberdintasun horiek eragin ditzaketen ondorioak ere; erantzukizun hori operadorearena bakarrik izango da.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Telefonoaren bermea

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako⁽¹⁾, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz:

izena, modeloa, IMEIa, data eta saltzailea.

Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman behar duzu.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu egingo da edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den.

Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin liteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik dituzten akatsak:

1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilerak- edo instalazio-jarraibideak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.

2) TCT Mobile Limitedek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.

⁽¹⁾ Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberkia izango da telefono mugikorren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure telefonoak.

3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limitedek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egin badituzte.

4) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Telefonoa ez da konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 Legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badigu.

Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme implizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legeko bermearen aplikazioari buruzko erreklamacioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraikiz, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902113119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS

Immeuble Le Capitole

Parc des Fontaines

55, avenue des Champs Pierreux

92000 Nanterre

Frantzia

Arazoak eta irtenbideak

Zerbitzu-zentroarekin harremanetan jarri aurretik, argibide hauei kasu egitea gomendatzen da:

- Bateria guztiz kargatzea gomendatzen da () funtzionamendu optimoa lortzeko.
- Ez gorde datu-kantitate handirik telefonoan, horrek funtzionamenduari eragin baitiezaioke.
- Erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera eta ONE TOUCH Upgrade tresna, telefonoaren softwarea formateatzeko eta eguneratzeko (erabiltzaile-datuak formateatzeko, luze sakatu # tekla eta pizteko/ itzaltzeko tekla, aldi berean, deskonexio-moduan). Erabiltzailearen datu GUZTIAK (kontaktuak, mezuak eta fitxategiak) behin betiko galduko dira. Formateatu eta eguneratu aurretik telefonoaren datuen eta profilaren segurtasun-kopia osoa izatea gomendatzen da.

Egin egiaztapen hauek:

Telefonoa ez da pizten.

- Egiaztatu bateriaren kontaktuak ondo daudela; atera bateria eta sartu berriro, eta piztu telefonoa.
- Egiaztatu bateriaren kargatze-maila egokia dela, eta kargatu gutxienez 20 minutuz.
- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo ONE TOUCH Upgrade, softwarea eguneratzeko.

Nire telefonoa blokeatuta dago, edo ez du erantzuten duela zenbait minutu

- Berrabiarazi telefonoa () tekla luze sakatuta.
- Atera bateria, eta sar ezazu berriro. Ondoren, berrabiarazi telefonoa.
- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo ONE TOUCH Upgrade, softwarea eguneratzeko.

Telefonoa bakarrik itzaltzen da

- Ziurtatu itzaltzeko teklak ez duela egiten kontaktu txarrik.
- Begiratu bateriaren karga-maila.
- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo ONE TOUCH Upgrade, softwarea eguneratzeko.

Telefonia ez da behar bezala kargatzen

- Egiaztatu ALCATEL ONE TOUCH bateria bat eta kaxako kargagailua erabiltzen ari zarela.
- Bateriaren kontaktua zikina badago, garbitu ezazu.
- Ziurtatu bateria ondo sartuta dagoela kargagailua konektatu aurretik.
- Egiaztatu bateria ez dagoela guztiz deskargatuta; denbora luzez egon bada deskargatuta, ia 20 minutu igaro daitezke pantailan bateriaren karga adierazten duen ikonoa agertu arte.
- Egiaztatu ohiko tenperaturaren kargatzen ari dela (0°C eta 40 °C bitartean).
- Atzerrian, egiaztatu sarrerako tentsioa bateragarria dela.

Telefonia ezin da inongo saretarra konektatu edo “Zerbitzurik gabe” mezua agertzen da

- Saiatu telefonia beste kokaleku batetik konektatzen.
- Galdetu operadoreari sarearen estaldurari buruz.
- Egiaztatu operadorearekin zure SIM txartela baliozkoa dela. Saiatu eskura dauden sareak eskuz hautatzen. Saiatu berriz geroago, sareak gainkarga badu.

SIM txartel okerra

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela. Begiratu SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta ote dagoen. Egiaztatu zure SIM txartelaren zerbitzua erabilgarri dagoela.

Ezin da dei bat egin

- Egiaztatu zenbaki zuzena markatu duzula, eta hautatu  tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/eremuko kodeak.
- Egiaztatu telefonia sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela.
- Egiaztatu kontratuaren egoera zure operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu deiak ez dituzula mugatu.
- Egiaztatu zure telefonia ez dagoela hegazkin-moduan. Ezin da dei bat jaso

Egiaztatu zure telefonia piztuta eta sare bati konektatuta dagoela

- (egiaztatu sareak gainkargarik ez duela edo eskuragarri ez dagoela).

Egiaztatu kontratuaren egoera zure operadorearekin

- (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu sarrerako deiak ez dituzula desbideratu. Ziurtatu ez dituzula zenbait dei blokeatu.
- Egiaztatu zure telefonoa ez dagoela hegazkin-moduan.

Sarrerako deiaren izena edo zenbakia ez da agertzen pantailan

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela. Deitzen ari den pertsonak bere izena edo zenbakia ezkutatu du.

Ez ditut nire kontaktuak aurkitzen

- Egiaztatu zure SIM txartela ez dagoela egoera txarrean. Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Inportatu telefonora SIM txartelean gordetako kontaktu guztiak. Deien soinuaren kalitatea eskasa da

Dei bat egiten ari zarela, bolumena doitu dezakezu tekla sakatuta.

- Begiratu seinalearen intentsitatea  zenbatekoa den.
- Egiaztatu entzungailua, konektorea edo telefonoaren bozgorailua garbi daudela.

Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak

- Egiaztatu zure operadorearekin zerbitzu horiek kontratatutak dituzula. Egiaztatu funtzio horrek ez duela ALCATEL ONE TOUCH osagarriren bat behar.

Nire kontaktuetako zenbaki bat hautatzean, ezin dut markatu

- Egiaztatu zenbakia ongi gorde duzula fitxategian.
- Egiaztatu, atzerrira deitzen ari bazara, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula.

Ezin diot kontaktu bat gehitu nire kontaktu-zerrendari

- Ziurtatu zure SIM txarteleko kontaktuentzako espazioa ez dagoela beteta; ezabatu SIM txarteleko fitxategi batzuk, edo gorde kontaktuak telefonoaren memorian.

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Egiaztatu zure operadorearekin zerbitzu hori eskuragarri dagoela.

Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Ziurtatu zure operadorearen ahots-postontziko zenbakia zuzena dela, hemen: “Mezuak|ahots-postontzia”.
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta badago.



ikonoa keinuka ari da deiak jasotzeko/egiteko pantailan

- SMS gehiegi dituzu SIM txartelean gordeta. Kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian.

SIM txartelaren PINa blokeatuta dago

- Jarri harremanetan operadorearekin, desblokeatzeko PUK kodea lortzeko.

Ezin dut telefonoa ordenagailura konektatu

- Ziurtatu dagokion kablea (kaxan zetorrena) erabiltzen ari zarela.

Nola lortu bateriak gehiago irautea

- Bateria osorik kargatu (3 ordu, gutxienez).
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu ondoren, itxaron 20 bat minutu adierazpen zehatza izateko.
- Atzealdeko argia behar duzunean bakarrik piztu.



Erabiltzaileak datuak formateatzea:

Telefonoko kontaktu, mezu eta fitxategi guztiak behin betiko ezabatuko dira. Mesedez, gorde datuak SIM txartelean formateatu aurretik.